



## EZ-OHIKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

2026.04.30

**Alkatea:**  
**Angel Martinez de Rituerto Arregui**

**Bertaratutako zinegotziak:**  
**Ander Figuerido Zubiria**  
**Aitor Aguirresarobe Murgui**  
**Miren Yosune Sanz Vidal**

Tolosako udaletxean, bi mila eta hogeita seiko apirilaren hogeita hamarrean, 09:00etan, lehenengo deialdian, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ez-ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboan aipatutako zinegotziak agertu dira, gai-zerrenda hau aztertzeko:

**Ez da bertaratu:**  
**Goiuri Eceiza Arandia**  
**Cristina Pelaez Errazquin**

1. Onartzea, hala badagokio, bidaiarien hiri-garraio kolektiboko zerbitzu-kontratuaren nahitaezko luzapena.

**Udal idazkaria:**  
**Sara Berasategui Fuertes**

**Kontu-hartzailea:**  
**Marta Alonso Eraso**



**1. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, BIDAIARIEN HIRI-GARRAIO KOLEKTIBOKO ZERBITZU-KONTRATUAREN NAHITAEZKO LUZAPENA.**

**AURREKARIAK**

**LEHENA.-** 2020ko uztailaren 17an Tolosako Tokiko Gobernu Batzarrak 2020SABI0001 espedienteari (Tolosako hiri-garraio kolektiboaren zerbitzu publikoa kudeatzeko zerbitzu-kontratua) hasiera ematea onartu zuen, eta 2021eko otsailaren 9an kontratua AUTOBUSES CUADRA S.A. enpresari esleitu zion.

**BIGARRENA.-** 2021eko ekainaren 1ean sinatu zuten kontratua TOLOSAKO UDALAK eta AUTOBUSES CUADRA S.A. bost urterako eta luzapenik aurreikusi gabe. Hortaz, kontratua 2026ko maiatzaren 31an bukatuko da.

**HIRUGARRENA.-** Hori guztia eta kontratu honek duen interes publikoa kontuan izanda, eta kontratuaren jarraipena bermatzeko asmoz, 2026ko otsailaren 26ko udalbatzak onartu zuen Tolosako Hiri garraio kolektiboaren zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratuaren espedienteari hasiera ematea.

**LAUGARRENA.-** Lizitazioa 2026ko otsailaren 27an argitaratu zen kontratazio profileen eta eskaintzak aurkezteko epea 2026ko apirilaren 8an amaitu zen eskaintzarik jaso gabe. Hortaz, kontratua hutsa deklaratu beharko da eta lizitazio berri bat prestatu. Kontratazio organoa hori guztia lehenbailehen prest edukitzeko izapideak egiten hasi den arren, ez da aurreikusten indarrean dagoen kontratua amaitu baino lehen kontratu berria esleituta edukitzea. Horregatik, beste irtenbiderik aurkitu ezean, kontratua eten beharko litzateke.

**BOSGARRENA.-** Ingurumen eta landa eremuko teknikariak 9/2017 Legeko, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena (aurrerantzean, SPKL) 29.4 artikuluan aurreikusten den ezohiko luzapena egitea proposatu du.

**SEIGARRENA.-** 2026ko apirilaren 29an kontratazioko teknikariak luzapenaren aldeko txostena egin du.

**ZAZPIGARRENA.-** 2026ko apirilaren 29an kontu hartzaileak bere txostena egin du.



## **OINARRI JURIDIKOAK**

**LEHENENGOA.-** SPKLko 29.4. artikuluan aurreikusten den luzapena ezohiko neurri bat da, kontratu berri bat garaiz esleitzea eragozten duten inguruabarrak gertatzen direnean soilik aplikatu daitekeena. Honakoa dio artikulua:

*“Kontratuaren muga-egunean ez denean kontratu berririk egin, kontratistak eman beharreko prestazioaren jarraitasuna bermatzen duenik, kontratazioarentzat aurreikusten ezinezkoak ziren eta adjudikazio-prozeduran gertatu diren gertakarietatik heldu diren gorabeheren ondorioz, eta interes publikoko arrazoiak daudenean prestazioa ez eteteko, jatorrizko kontratua luzatu ahalko da kontratu berria egikaritzen hasten den arte eta, nolana ere, gehienez ere bederatzi hilabetez, kontratuaren gainerako baldintzak aldatu gabe; horretarako baldintza izango da, betiere, kontratu berrirako lizitazio-iragarkia kontratua amaitzeko data baino gutxienez ere hiru hilabete lehenago argitaratu izana.”*

**BIGARRENA.-** Aurreikusi ezin diren gertaerak.

Legeak aurreikusi ezin diren gertaerak egotea ezartzen du luzapena egiteko baldintza gisa. Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen 73/18 eta 86/18 txostenen arabera baldintza hau ezartzerakoan legegilearen asmoa da luzapena kontratua ikuskatzen eta kontrolatzen duenaren behar besteko ardurarekin lotzea.

Kasu honetan argi dago espero gabeko eta bat-bateko gertaera bat izan dela lizitazioa hutsa gelditzea. Kontratazio organoak ez zuen aurreikusten kontratu hau hutsa gelditzea. Kontratazio organoa behar besteko aurrerapenarekin hasi zen lizitazioa prestatzen, besteak beste, kontratazio publikoaren jarduera programatzeari eta planifikatzeari buruz legearen 28.4 artikulua jasotako betez. Kontratua hutsa gelditu izana udalaren borondateatik at gelditzen den gertaera bat da eta ezin zaio bere ez egiteari egotzi. Aipatu behar da lizitazioa indarrean dagoen kontratua amaitu baina hiru hilabete lehenago publikatuta zegoela.

**HIRUGARRENA.-** Zerbitzuaren jarraipena bermatzeko beharra.

Ingurumen eta landa eremuko teknikariak azaldu du bere txostenean hiri-garraio zerbitzua udalerrian errotuta dagoela. Auzo periferioketatik hirugunera mugitzen laguntzen duen zerbitzu bat dela, ibilgailu pribatuaren erabilera murriztuz eta mugikortasun urriko erabiltzaileen mugikortasuna ahalbidetuz. Horregatik, interes publikoko arrazoiak daude kontratua ez eteteko.

**LAUGARRENA.-** Luzapenaren iraupen mugatua eta baldintzen mantentzea.

Luzapena kontratu berria formalizatu arte eta gehienez ere 9 hilabetekoa izatea proposatzen da. Hau da, luzapena kontratu berria formalizatu arte zerbitzurik gabe ez geratzeko denborara mugatzen da. Gainera, indarrean dagoen kontratuko baldintza berdinetan egingo da luzapena.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### ERABAKI DU

**LEHENENGOA.-** 2020SABI0001 Tolosako Hiri-garraio kolektiboaren zerbitzuaren kontratuaren luzapena onartzea, kontratu berria formalizatu arte eta gehienez ere 9 hilabetez, orain arteko baldintza berdinetan.

**BIGARRENA.-** Luzapena AUTOBUSES CUADRA S.A. enpresari jakinaraztea.

**HIRUGARRENA.-** Alkateari ahalmena ematea kontratuaren luzapena sinatzeko.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 09:10ean.**

**ALKATEA**

**UDAL IDAZKARIA**



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2026IGBA0017-2026/04/30eko akta/2026/04/30eko akta ()